

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapena

Herritarrei laguntzeko agenteen 2 lanpostu jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarriak onestea (azpitaldea: C1; 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharrik gabe), barne-sustapeneko txandako lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, herritarrei laguntzeko eredu berriaren giza baliabideak antolatzeko plana betetzeko

Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko otsailaren 13ko erabakiaren bidez, 2026ko enplegu publikoaren eskaintza bat onartu zen, besteak beste, herritarrei laguntzeko agenteen 2 plaza betetzeko, (azpitaldea: C1; 2. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun-datarik gabe) barne-sustapeneko txandaren bidez, herritarrei laguntzeko eredu berriaren giza baliabideak antolatzeko plana betetzeko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluan ezarritakoa betez, bidezkoa da aipatutako bi lanpostuei dagokien hautaketa-prozesurako deialdia egitea eta prozesu hori arautuko duten oinarriak eta gai-zerrenda onestea.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hautaketa-prozedura hau izapidetzean eraginkortasuna eta azkartasuna bermatzeko beharra kontuan hartuta, eta ohiko epeak luzatzeak PORHean onartutako hurrengo faseak amaitzea arriskuan jar dezakeenez, justifikatuta dago prozesu honen oinarrietan jasotako epe-murrizketa.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen bitartez aldatua — 127.1.h. artikuluan xedatzen duenez, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio enplegu publikorako eskaintza onestea, baita langileak hautatzeko proben eta lanpostuak betetzeko lehiaketan oinarriak onestea, baita langileen inguruko bestelako erabakiak hartzea ere, beste organoren bati aitortu ez bazaizkio.

Hori dela eta, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau ebatzi dut:

Ebazpena

Lehenena. Onestea barne-sustapeneko txandako lehiaketa-oposizio sistemaren bidez herritarrei laguntzeko agenteen 2 lanpostu (2. hizkuntza-eskakizunik gabe) karrerako funtzionario gisa jabetzan betetzeko deialdia, hautaketa-prozesuaren oinarriak eta gai-zerrenda, herritarrei laguntzeko eredu berriko giza baliabideak antolatzeko plana betetzeko.

Bigarrena. Deialdia eta gai-zerrenda duten oinarriak ALHAOn argitaratzeko agintzea eta, hartara, hasiera ematea eskabideak aurkezteko epeari.

Ebazpen honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien atalean, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorriari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko otsailaren 24an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi-ordezkaria
JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO

Herritarrei Laguntzeko Agente izateko 2 lanpostu (2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharrik gabe) barne-sustapeneko txandako lehiaketa-oposizio sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriak, herritarrei arreta emateko eredu berriaren giza baliabideak antolatzeke plana betetzeko

Lehena. Deialdiaren xedea

1.1. Herritarrei Laguntzeko Agenteen 2 lanpostu betetzea da deialdi honen xedea. C1 azpitalea, Administrazio Orokorreko eskala, administrarien azpieskala (1200C) eta 2. hizkuntza-eskakizuna (B2), derrigortasun-data igaro gabe.

1.2. Deialdi hau barne-sustapeneko txandaren oposizio-lehiaketaren bidezko hautaketa-prozesua da.

1.3. Deialdiari buruzko informazioa:

— Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.

Bigarrena. Baldintzak

Hautagaiek baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte —2.4 eta 2.5 baldintzak izan ezik— eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta karguaz jabetzen diren egunera arte eutsi beharko diete:

2.1. Informazio- eta kontrol-agentearen lanpostuan jardunean dagoen karrerako funtzionarioa izatea, eta jatorrizko kidegoan eta eskalan karrerako funtzionario gisa bi urte bete izana.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, C1 taldeari dagokion titulazioa izatea edo lortzeko moduan egotea —batxilergoko titulua, lanbide-heziketako teknikariaren titulua edo titulazio baliokide edo homologatuak— edo, bestela, hamar urteko antzinatasuna izatea C2 azpitaldeko kidego edo eskala batean.

2.3. Inskripzio-tasekin lotutako betekizuna. Hutsik dauden lanpostuen jabe izango direnak hautatzeko lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Vitoria-Gasteizko Udalak finkatuak dituen tasak (7.13 tasa) ordaindu izana (zein titulazio taldeetarako lehiatzen den, horri dagokiona) eskabideak aurkezteko epearen barruan.

2.4. Gaitasun digitalei buruzko betekizuna. "IT txartelak" egiaztagiria izatea. Eskatutako ziurtagiriak, maila aurreratuko bertsioak eta 2002az geroztikoak ere baliozkoak izanik: Windows XP, Internet Oinarrikoa, Word XP Aurreratua, Excel XP oinarrikoa eta Power Point XP (IT03 udal multzoa). Horiek eskuratzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik.

2.5. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun arazorik ez edukitzea. Udal honetako Prebentzio Zerbitzuak erabakiko du gaitasunari dagokionez, Laneko Osasunaren Atalaren bidez.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea

3.1. Hautatze-prozesuan parte hartu nahi dutenek udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak) tramitatu beharko dute eskabide elektronikoa.

3.2. 20 egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Ondorio horietarako, igande eta jaiegunez gain, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

3.3. Probak zein hizkuntzatan (euskaraz ala gaztelaniaz) egin nahi dituzten adierazi beharko dute hautagaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.4. Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek hala adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eska daitekeen gehieneko maila (C1), lortu nahi den plazaren gain-gainekoari dagokiona da (B2).

3.5. Behar den dokumentazioa ofizioz bilduko da espediente pertsonaletik eta elkarreragin-garritasun-sistemen bidez.

3.6. Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian jasotako baldintzak onartzeko konpromisoa hartzea, eta Vitoria-Gasteizko Udalari ahalmena ematea erregistro ofizialetan kontsulta telematikoa egiteko —hala nola titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, emandako zerbitzuak, gidabaimenak eta abar egiaztatzeko—, kontsulta-modalitate hori ezinezkoa denean izan ezik; kasu horretan dokumentazioa eskatuko baitzaio. Inork datu faltsurik ematen badu aurkeztutako dokumentazioan, hautatze-prozesutik kanpo utziko da.

Laugarrena. Egokitzapenak

4.2.2. Amatasunagatiko egokitzapenak. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek eskatu ahalko dute.

Bosgarrena. Onartuen eta baztertuen zerrenda

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Funtzio Publikoaren zinegotziak, eta egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratzeko aginduko, bidenabar adierazten delarik izangaiek 5 egun balioduneko epea izango dutela akatsak erreklamatu eta zuzentzeko, halakorik gertatu bada.

5.2. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, hautagai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du Funtzio Publikoaren zinegotziak, baztertuta gertatzeko arrazoiak aipamenarekin batera. Hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien atalean bi hilabeteko epean, eta aukerako berraztertze-errekurtoa ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesu horietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, galdu egingo dituzte prozedura honetan parte hartetik erator daitezkeen eskubide guztiak.

Seigarrena. Epaimahaia

6.1. Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Giza Baliabideen buruak (lehendakaria izango da), hiru kide teknikok, idazkariak eta horien ordezkoeak.

6.2. Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Epaimahaiak udalaren Berdintasun Zerbitzuaren berdintasun-arloko aholkularitza izango du nahitaez.

6.3. Epaimahaiak erabakiko ditu oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.4. Eskabideak aurkezteko epea amaitzearekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkoen izenen zerrenda.

6.5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek haiek errefusatzea izango dute.

6.6. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiak hautaketa-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldeztatik aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, eta izangaia egindako okerrean nahiz faltsutasunen berri eman.

6.7. Prozesuaren edozein faseri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahaliko du epaimahaiak hautaketa-prozesuko edozein unetan, edozein epaimahaikidek hala eskatzen badu.

6.8. Egoitza elektronikoa ("Nire hautaketa-prozesuak") izango da erabakiak, deiak, ariketen egun-orduak nahiz bestelakoak argitara emateko lekua: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.

6.9. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaiak.

6.10. Epaimahaietan parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

Zazpigarrena. Ariketaren nondik norakoak eta komunikazioak

7.1. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak) egongo dira eskuragarri oinarri hauek, bai eta zereginen katalogoa eta egokitutako jotako gainerako dokumentazioa.

7.2. Dei bakarra egingo zaie izangaiei, 75 oinarrian jasotzen diren egoerak salbu. Epaimahaiak proba egiteko zehazten duen egun, ordu eta lekuan agertzen ez direnak hautatze-prozeduratik baztertuta geratuko dira besterik gabe. Berdin jokatuko da probak egiten hasi ondoren agertzen direnekin.

7.3. Nortasun agiria, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute izangaiek probara, eta edozein unetan eskatu ahaliko die epaimahaiak erakusteko; orobat, epaimahaiak proba bakoitzerako ezartzen dituen materialak eraman beharko dituzte.

7.4. Ariketa ezingo da hasi deialdi honen iragarpena ALHAOn argitaratzen denetik bi hilabete igaro aurretik. Ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua gutxienez hamar egun baliodun lehenago iragarriko dira, egoitza elektronikoa ("Nire hautaketa-prozesuak").

7.5. Aparteko deialdiak. Kasu hauek eragindako pertsonen aparteko deialdi batera deitu beharko die epaimahaiak: deitutako proba egin aurretik ama izatea; erditze-data proba egiteko data baino 15 egun natural aurreragokoa izatea gehienez, edo aurreikusitako datan proba egitea eragotzi duen ezinbesteko arrazoren bat, epaimahaiak aintzat hartu badu. Deialdi nagusia egin ondoren 15 egun natural baino laburragoa eta 40 egun baino luzeagoa ez den epe baten barruan egin beharko da. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokituko ditu, eta behar diren egokitzapen pertsonalak hartuko dira kontuan.

7.6. Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ezinbesteko kasutzat hartuko da, ezusteko kasua ez izan arren, proba edo azterketa bat egitea eragozten duen egoera, baldin eta ohiz kanpoko, saihetsezina eta aurreikusi ezina bada. Apartekoa eta naturala, zeinean ez baitu izangaiaren borondateak esku hartzen, harentzat guztiz arrotza baita, eta aurka egiterik ez baitu. Proba egiten denetik 3 egun baliodun igaro baino lehen informatu eta jakinarazi beharko zaio epaimahaiari.

Kasu horietan, epaimahaiak pertsonaren egoera baloratuko du, prozesuan parte hartzerik izan dezan bermatzearen, bai eta neurri horrek hautaketa-prozesuan nagusi izan behar duen berdintasun-printzipioan izan dezakeen eragina ere, berez lehiakorra den prozesu batean parte hartzen duen kolektiboa izanik.

7.7. Ezingo da epaimahaikideekin banaka harremanetan jarri, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gaiz aritzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan sor daitezkeen gorabeherak idatziz azalduko zaizkio epaimahaiari, eta hark erabakiko du dagokiona, kide anitzeko organoa den aldetik.

7.8. Inork probetako edozein normaltasunez garatzea eragozten duen iruzurrezko jarduerarik egiten badu, edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera lehia desleiala sortzen duenik, epaimahaiak hautaketa-prozeduratik kanpo utzi ahalko du, eta jardun horiek bilkura-aktan jasoko ditu. Hautaketa-prozesuko edonolako proba mota egiten den bitartean, ez da onartuko lehen aipatutako printzipioak saihesteko erabil daitezkeen bitarteko eta/edo gailu elektronikoak eduki edo erabiltzea. Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, berehala kanporatuko da, bai probatik, bai hautaketa-prozesutik, eta ez da, inola ere, horren ondoriozko lan-poltsan sartuko.

Zortzigarrena. Hautaketa-prozesua

Azterketa eta merezimendu-lehiaketaren bitartez egingo da hautaketa-prozesua.

8.1 Oposizio-faseak ariketa bakar bat izango du, nahitaezkoa eta baztertzaila, teoriko-praktikoa. Barne-sustapeneko prozesu bat denez, hautagaiak salbuetsita egongo dira gai-zerrenda orokorrari buruzko probak egitetik. Eranskinetako gai-zerrenda espezifikokoari buruzkoa baino ez da izango ariketa. Test motakoa izango da ariketa, eta galdera bakoitzak lau erantzun izango ditu aukeran. Zuzeneko puntuazioa kalkulatzeko, asmatutakoengatik puntu bat emango da eta akatsak zigortu egingo dira (-0,33); zuri utzitakoak, baliogabeak eta bikoitzak ez dira zigortuko. Gehienez ere 10 puntu eskuratu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxienez 4 puntu lortu behar dira.

8.2. Lehiaketa-fasean euskara-maila balioetsiko da, honako puntuazio honen arabera:

- 0,50 puntu, B1 mailagatik.
- 0,75 puntu, B2 mailagatik.
- 1,00 puntu, C1 mailagatik.

Puntuazioak ezin dira metatu.

8.3. Berdinketak ebaztea. Hala badagokio, lehentasuna ezartzeko aintzat hartuko da informazio-eta kontrol-agenteen, kontrol-ofizialen edo atezainen kategorietan karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetu zen eguna; berdinketak jarraitzen badu, lehenetsi egingo da Vitoria-Gasteizko Udalean karrerako funtzionario gisa sartu zen eguna eta, azkenik, Vitoria-Gasteizko Udalean aitortutako antzintasun-data.

Bederatzigarrena. Egiaztagiria aurkeztea

9.1. Egiaztagiria espediente pertsonaletik eta erregistro ofizialetatik eskuratuko dira. Hala egin ezin izatera, epaimahai kalifikatzaileak interesdunari eskatuko dizkio.

Hamargarrena. Emaizak argitaratzea

10.1. Epaimahaiaren argitalpenak egoitza elektronikoan egingo dira ("Nire hautaketa-prozesuak").

10.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz.

Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahaiak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta gaian erabiltzeko kodeak ere ezarri ahalko ditu, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearen.

10.3. Jakinarazpenak posta elektronikoz igorri jakinaraziko zaie deialdi jakin batera aurkeztu diren izangai guztiei egoitza elektronikoan (“Nire hautaketa-prozesuak”) argitalpen berriak egin direla. Abisuak ez jasotzeko ez du baliogabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

10.4. Epaimahaiak galderen koadernoak eta erantzunen behin-behineko txantiloia argitaratuko ditu. Behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea izango da probari buruz egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, epaimahaiak behin betiko emaitzak onartuko ditu eta argitaratzeko aginduko du. Argitalpen horren bidez, aurkeztutako erreklamazioak erantzun direla ulertuko da. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

10.5. Behin betiko emaitzen erabakiaren aurka, izangaiek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Vitoria-Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoko zinegotziari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hamaikagarrena. Izendapen proposamena eta lanpostuaz jabetzea

11.1. Lanpostu bererako deialdiak badaude hizkuntza-eskakizunarekin eta hizkuntza-eskakizunik gabe, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak esleitu dira lehenengoz.

11.2. Agiriak aurkezteko epea amaituta, eta gehienez ere 30 egun balioduneko epean, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu dutenen aldeko izendapen-proposamena egingo du.

11.3. Epaimahaiak izendapen-proposamena egin eta lanean hasteko data zehaztu eta argitaratu ondoren, izendatutako pertsona karguaz jabetu beharko da, horretarako ezarritako epean, eta gehienez 30 egun baliodun atzeratu ahalko du, lanean hasteko data argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

11.4. Destinoek behin betiko izaera izango dute, eta lehiaketa bidez lortutakoen baliokideak izango dira ondorio guztietarako.

Hamabigarrena. Aldi baterako kontratua

12.1. Deialdi honen emaitzak baliatuko ditu Funtzio Publikoaren Sailak, hizkuntza-eskakizunik gabeko lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen prozeduraren bidez aldi baterako betetzeko.

Hamahirugarrena. Gardentasuna eta datu pertsonalak babesteko politika

13.1. Oinarri hauek, baita horiek gauzatzearen ondorio diren administrazio-egintzak ere, langileak hautatzeko eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak kudeatzeko prozesuetan datu pertsonalak babesteko udal protokoloari lotuta daude.

13.2. Izena emateko inprimakia aurkezte hutsarekin, parte-hartzaileak argi adierazten du prozesuaren gardentasun-baldintzak eta datu pertsonalen babesaren murriztapena onartzen dituela.

Hamalagarrena. Aplikatzekoak diren lege-arauak

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki administrazioari buruz indarrean dauden xedapenen testu bategina.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.

- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Eusko Legebiltzarrarena, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak bete eta lanbide sustapenerako Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- Oinarri hauek.

Hamabosgarrena. Aurkaratzeak

15.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek oinarri hauek, deialdia bera nahiz horren edo epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzak.

GAI-ZERRENDAK

Gai-zerrenda orokorra

1. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Egitura eta printzipio orokorrak: 1-9 art. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak: 10-29 artikulua Estatuaren lurralde-antolamendua: 137-142 artikulua.
2. gaia. Estatua: antolaketa eta Administrazio Publikoa. Sektore publikoaren jarduteko printzipioak: 40/2015 Legearen 3. eta 4. artikulua Administrazio-organoak: 40/2015 Legearen 5-22 artikulua.
3. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak (10. artikulutik 23.era). II. titulua. Euskal Herriaren aginteak (24. artikulutik 33.era).
4. gaia. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. udalerriko auzotarren eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak (43. eta 44. artikulua); zerbitzuen kartak (45. eta 46. artikulua); gobernu irekia (47-49 artikulua).
5. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen. Udalerria: kontzeptua eta elementuak: 1-6 artikulua Udalerrien eskumenak: 7/1985 Legearen 25-27 artikulua Udal antolakuntza: 7/1985 Legearen 20-23 artikulua.
6. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Denbora-dimentsioa. Epe-mugak eta epeak (29. artikulutik 33.era). Administrazio-egintzak eta egintzen efikazia (34. artikulutik 52.era).
7. gaia. 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Printzipio orokorrak: 1-4 artikulua Ondare-erantzukizuna: 32-37 artikulua.

8. gaia. 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa. Eremu subjektiboa eta printzipioak: 2. eta 3. artikulua Publikotasun aktiboa: 5-11 artikulua Gobernu ona: 25-31 artikulua.

9. gaia. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako. Xedea, aplikazio-eremua eta printzipio orokorrak: 1-4 artikulua EAEko administrazio publikoek berdintasunaren arloan jarduteko printzipioak: 3 eta 15. Administrazioen jarduketan genero ikuspegia txertatzea: 17 eta 18.

10. gaia. Enplegu publikoa. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina. Enplegatu publikoen motak: 8-12 artikulua Eskubideak eta eginbeharrak: 14-16 artikulua Jokabide-kodea: 52-54 artikulua Diziiplina-araubidea: 93-98 artikulua.

11. gaia. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea. Babesa izateko eskubidea: Prebentzio-ekintzaren printzipioak: 15. artikulua. Administrazioak enplegatzaile gisa dituen betebeharrak: 16-22 artikulua.

12. gaia. 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO). Xedea eta aplikazio-eremua: 1. eta 2. artikulua DBEO Datuak babesteko printzipioak: 5. eta 6. artikulua DBEO 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa. Erabiltzaileen eskubideak: 12-18 artikulua.

13. gaia. 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena. Kontratazio publikoaren printzipioak: 1. eta 132. artikulua Kontratu motak: 12-17 artikulua.

14. gaia. Vitoria-Gasteizko Udalaren antolakuntza politikoa. Organoak eta funtzioak. Vitoria-Gasteizko Udalaren administrazio-antolakuntza. Organigrama.

15. gaia. Herritarren partaidetza. Parte hartzerako organoak eta bitartekoak. Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoa. 2022ko maiatzaren 11ko ALHAO, 54. zenbakia (Azken aldaketa).

Gai-zerrenda espezifikoak

16. gaia. Dokumentuak Vitoria-Gasteizko Udalean erregistratzea, Herritarrei arreta emateko aplikazioaren bidez (EVA).

17. gaia. Gizarte-etxeetako eta udal-instalazioetako abonamendua.

18. gaia. Udal errolda.

19. gaia. Haur eskoletan izena ematea. Betekizunak, dokumentazioa eta prozedura.

20. gaia. TAO-Txartela eskatzeko izapideak egitea, Herritarrei laguntzeko bulegoetan.

21. gaia. Adinekoentzako baliabideak: ZLPE, jantokiak, etxebizitza komunitarioak, zainpeko apartamentuak, eguneko arreta-zentroak, asteburuko eguneko zentroak. Prozedura eta erregistroa.

22. gaia. Banku-helbideratzea eta jakinarazpenetarako helbidea. Epeak, baldintzak eta tramiteak egiteko bideak.

23. gaia. Epeka ordaintzea eta zerga-tarifa laua (FJE).

24. gaia. Zorren ziurtagiriak eta ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzeko ziurtagiriak. Zerga-ziurtagiriak eta -eginbideak.

25. gaia. Arriskutsu izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia. Eskabidea, txartela eta txaretlaren kopia.

26. gaia. Herritarren UdalTxartela (HUT).

27. gaia. BAT txartela.
28. gaia. Trafikoaren alorreko prozedura zigortzailea.
29. gaia. Zehapen-prozeduretan erantzukizuna aitortzea eta/edo goiz ordaintzea.
30. gaia. Desgaitasuna eta mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzeko ibilgai-luentzako aparkatzeko txartela.
31. gaia. Hirugarrenak. Alta, aldaketa, bikoiztasuna saihestea. Helbideak. Harremanetarako datuak. Zerga-egitateak eta irudiak.
32. gaia. Herritarrentzako arreta. Espazio fisikoa eta trebetasun profesionalak.
33. gaia. Herritarrentzako arreta. Helburu orokorrak, funtzioak eta kanalak.
34. gaia. Herritarrentzako arreta. Arauak eta dekalogoak.
35. gaia. Udalaren webgunea. Edukiak antolatzea, bilatzailea eta Egoitza Elektronikoa.
36. gaia. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa). 12. artikulua. Interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea.
37. gaia. (39/2015 Legea, urriaren 29koa). 9. artikulua Elektronikoki identifikatzeko sistemak. 10. artikulua Elektronikoki sinatzeko sistemak.
38. gaia. (39/2015 Legea, urriaren 29koa). Administrazioaren jakinarazpenak 40-44 artikulua.
39. gaia. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa). 13. artikulua. Pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. 14. artikulua Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharrak. 53. artikulua Administrazio-prozeduran interesdunenaren eskubideak.
40. gaia. (19/2013 Legea) informazio publikoa eskuratzeko bidea 17. artikulua: Informazioa eskuratzeko eskaera aurkeztea. 18. artikulua: ez onartzeko arrazoiak. 19. artikulua: eskabideak izapidetzea. 20. artikulua: ebazpena eta epeak. 22. artikulua: Informazio eskuratzeko moduak. 23. artikulua: Gardentasunerako Kontseiluari egindako erreklamazioak.